

Garapen Profesionala. Azpiaztergaiak eta deskriptoreak

Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa	Erakundeak konpromiso bat du hartuta pertsonalaren garapen profesionalarekin teknologia digitalak eta pedagogia digitala integratzeari eta modu eraginkorrean erabiltzeari dagokionez, erakundearen CDPren bisioaren, misioaren eta horniduraren testuinguru zabalagoan kokatuta daudenak irakaskuntzari eta ikaskuntzari dagokienez oro har.
EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da	Garapen profesionalak barne hartzen du erakundearen esparru globala, eta zuzendaritza-taldeari nahiz lehenengo mailako pertsonalari zuzenduta dago EGPren esku-hartze egokien bidez, pertsonalaren parte-hartzea zabala izango den itxaropenez.
EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketakoko premiekin	Erakundeak garapen profesionalerako programak identifikatu, diseinatu eta garatzeko (edo eskuratzeko) prozesuak ditu ezarrita, ikaskuntza digitalerako teknologien eta pedagogia digitalaren alderdi ezberdinei heltzen dietenak, banakako premiekin nahiz erakundearen premia partikularrekin lerrokaturik.
Agerikoa da EGP eredu- sorta zabala dagoela	Ikaskuntzako erakundeak pertsonalaren garapen profesionalerako eredu-sorta zabala erabiltzen du (prestakuntza pertsonala (<i>coaching</i>) eta tutoretzak barne direla), eta erakunde barruan eta erakundetik kanpora aurrez aurre eta online aplikatzen eta konbinatzen ditu.
EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira	Ikaskuntzako erakundeek bultzatu egingo dute pertsonala, eta lagundu ere egingo diote, irakaskuntzako, ikaskuntzako eta ebaluazioko rolak gehiago profesionalizatzeko lagungarriak diren garapen profesionalerako aukera egiaztatu/ziurtatuei heltzera.